

Janeta Hiribarren
Sara, Lapurdi (1834)

Aurkibidea

Biografia

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 79 urte zituen Janetak elkarrizketatu zutenean. Emagina eta sukaldaria izandakoa, aita Etxalarkoa zuan, ama berriz Lohoussoakoa. Euskalkia: lapurtera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.177 eta 2.178

Zintak

SAR-007

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-07-21
- **Iraupena:** 5 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

- **Emalea:** OAW

Pasarteak

1. Salomon erregea

- **Erref:** SAR-007/001
- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:07

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Salomon erregeari buruzko usadiozko narrazio erlijiosoa.</p>

Transkripzioa

Ona... Errege, errege Salamon, istoriua.
Bazituen hiru alaba. Denbora hartan usaia zen erresuma batetik bertzera bisitaz guaitia. Salamon guan zen eta egotu zen denbora piska bat. Galdetu zioten zer familia zuen. Desohore baizitzaion hiru alaba erra-erraitia, erraten diote hiru seme zituela eta berehala hango erregek galdetzen dio hiru hilabeteren buruan seme bat egortzeaz. Hura ere gan beharra zela, harrek erreplazatuko zuela. Errege Salamon partitzen da etxerat arras triste. Gezurra errana ezagutzen dute alabek. Erraiten diote: zer duzu horren triste? Aitak: Zer probetxua izanen dinat zueri erran eta? Nork daki? Hola-hola guan ziren zonbait egun, gero eta gehiago triste. Alaba zaharrenak...

Atakatzen du: Zer duzu, aita? Orduan erraiten dio: eztun probotxurik: gezurra erran zioinat erregeri hiru seme zaiztuztedala eta ezin erremedia. "Ni guanen naiz, aita". Hi ba! "Ni". Beztitzen da soldado arropan. Aitak [emaiten dio] zaldia, behar duen dirua. Aitak zer egiten du ikusteko ian kuraia izanen zuen: bide bazterretz ateratzen zaio biderat. Erraiten dio: "bizia ala moltsa?" Itzultzen da iziturik etxerat. Aita lehenago etxerat arribatua portaletan. "Izitu naiz aita, ohoin bat ateratu zait." Erraiten dio bigarrenak: "Berehala ni guanen naiz." Aitak: "Hik ere horrek bezala egingen dun." "Gan behar dut." Partitzen da. Aita badoha bertzeari bezala, erraiten dio: "Bizia ala moltsa." Itzultzen da [berehala etxerat. Ordukotz aita portaletan: "Hor aiz, hi ere." "Ba aita, ohoin bat ateratu zait." Hirugarrenak erraiten dio: "Ni guanen naiz, aita." "Hik ere horrek bezala egingen dun."]

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com